


Antso bekainzuria; erregerik txikiena

Migel Mari Elozegi*



FITXA TEKNIKOA

Erregetxo bekainzuria

Espezia:	Regulus ignicapillus
Familia:	muszikapidoak
Ordena:	paseriformeak
Klasa:	hegaztiak

Antso VII.a Azkarra, Nafarroako XVI. erregea, bi metrotik gorako gizon puska omen zen. Baliteke erregeen artean ere horrelako taimain ezohizkoak izatea baina, ez al da bitxia Europa osoko hegazti txikiena "erregetxo" izenaz ezagutzea?

Agian zuetako batzuk txikiena txepetxa zelakoan zeundeten, baina erregetxoaren pisua txepetxarenaren erdia izan daiteke, 5 gramo alegia, eta bere luzera ez da 8-9 cm-tik gorakoa izaten. Nolatan bada, eman zitzaion ohorezko izen hori? Txoritxo honek urre koloreko koroa dotorea du buruan, baina hain txikia izanik, ezin errege deitu eta erregetxo izena jarri zioten.

Duen tamaina kontutan hartuz gero, paseriforme hau ezagutzea ez zaigu oso zaila gertatuko. Baina ezagutze-ko ikusi egin behar eta arrazoi berberagatik, bigarren hau ez da hain erraza izaten. Hain txikia izanik, askotan ez ginateke inguruan dabilenik ohartuko, kantu honengatik ez balitz: "tsi-tsi-tsi-tsi". Hortaz, behin eta berriz errepikatzen duen dei horrek txoria aurkitzen lagun gaitza-ke. Behin gauza fimiño hori begibis-

tan dugularik, segundo erdiz ere ez dela geldirik egoten ohartuko gara. Hegaldi motzak tartekatuz, zuhaitz-adarretan batera eta bestera ibiltzen da etengabe, gizakioi jaramon handirik egin gabe. Horregatik, batzuetan gertu samarretik ikusteko aukera eskaintzen digu eta horietan, bere janzkera ederraz jabe gintezke. Arrak errege handien pareko soingaineko berdea du bizkarrean. Pileoan (buruaren gainaldean) berriz, arrasto beltzez inguratutako laranja koloreko gandorra edo koroa. Lepoaren bi alde horiak, bekain zuria eta begiko marra beltza ere nabarmenak dira. Begien inguruko kolore horietan hain zuzen ere bereizten da hobekien gure erregetxo bekainzuria (*Regulus ignicapillus*) mendi-erregetxotik (*Regulus regulus*); azken honek beltzez inguratutako gandorra bai, baina bestelako arrastorik ez baitu ageri. Horrez gain, espezie bakoitzak erraz bereizteko moduko kantua egiten du.

Emeak antzeko kolorazioa du, baina koroaren kolorea horia da. Gazteek azkenik, ez dute koroarik ageri eta gorputzaren eta begiko arrastoen kolorea ez da hain bizia.

Erregetxo bekainzuria baso eta zuhaitzietako espezia da. Koniferoak ikaragarri maite dituen arren,

Tamaina txikiak gain, hegazti honen ezaugaririk bereizgarriena buruko kolorazioa da. Begiko marra ilunak eta bekain zuririk mendi-erregetxotik bereizten dute.





Konifero, ipuru zein huntzaren hosto-lartean, erregetxo bekainzuriaren habia ongi gorderik egoten da.

pagadi, artadi zein beste baso eta sastrakadi batzuetan ere topa dezakegu. Herri handietako parke eta lorategietako zuhaitzak halaber, atsegin zaizkio. Bestalde, lautada eta bai-larelatik, 1.600 metroraingo daiteke mendian.

Nafarroako Erregeek antzinan egiten zuten bezala, Erregetxoak ere Gor-tearekin joaten dira ehizara; eta Gor-tea kaskabeltz, txilo eta gerri-txoriez osaturik egoten da gehienetan. Beraz, animalia sozial hauek familia-taldeetan eta normalki paridoekin batera ikusten ditugu, ugaltze-sasoitik kanpo behintzat. **Ehizakiak atzemateko ehiza-batidak egiten diren bezala, partaide guztiek basoko txoko guztiak arakatzeari ekiten diote.** Alabaina, kompetentzia saihesteko, bakoilza ehizaki-mota batzuetan eta zuhaitzen alde jakin batzuetan espezializatzen da. Arinenak direnez, erregetxoak zuhaitz-adarrak finenetara iristen dira eta itxura ahula eduki arren, trebetasun handia erakusten dute zomorro-ehizan. Dena den, hain gorputz txikian homeotermia (gorputzaren tenperatura) mantentzeak energi gastu handia du eta bizirik irauteko erruz ehizatu behar dute. Moko zorrotzaz baliatuz, insektuak, armiarmak eta oro har omogabe txikiak harrapatzen dituzte normalki.

Udaberrian, Erreginatxo bekainzuri edere batekin ezkontzeko tenorea iristen zaio. Horretarako lagunartea utzi eta arrak lurralde bat bereganatu behar izaten du. Inguru horretara espeziekiderrak hurbiltzen bada, ko-

roa dotorea harrotu, eta burua sutan balu bezala lurraldean sartu denaren aurka iristen da azeria bota arte. Urrezko koroa altxatuz halaber, eztei-jolasetan emea txunditu eta erakartzen saiatzen da.

7-11 Printzetxo edota Printzesatxoak arrautza zuriketarik jaiotzen dira habi apain eta goxo-goxo batean. Habia ordea, inork topa ez dezan ederki gordeta egoten da konifero, ipuru edota huntzaren hostoen artean. Berotasun izpirik ere gal ez dadin gainera, goroldio, belar eta amarau-nezko eraikuntzan, gurasoek lumatxak jartzen dituzte inguru guztian. Txitoen bizitza hala ere, arras gogorra da, batez ere bi asteko adina du-



telarik habia uzten dutenean. Hilortasuna handia denez, erregetzaren ondorengotza ziurtatzeko, urtean bitan kumatu ohi dira.

Erregetxo bekainzuriaren Erresuma Europa mediterraniarretik Baltikoko hegoalderaino zabaltzen da, eta baita Afrika, Asia eta Ameriketako lurralde batzuetara ere. Iberia hezean, nonahi aurki genezake, baina hegoaldean, mendi aldean besterik ez. Euskal Herrian arrunta da, Mediterraniar isurialdean ezik. Ebro aldeko soildutako lurrak eta iparraldeko eskualderen bat izan daitezke menperatu ez dituen bakarrak. Dirudiezez, Bizkaia eta Gipuzkoako pinu-landaketak mesedegarri izan dira

espeziearentzat eta bertan, hegazti arruntetarikoa dugu. Aipatu dugun banaketa hau mendi-erregetxoak duenaren ezberdina da oso, azken hau Pirinio aldeko konifero-basoetan besterik ez baita kumatzen gure Herrian. Europako kontinenteko banaketari dagokionez ordea, mendi-erregetxoak bekainzuria baino asko hedatuago dago.

Gure eskualdeko erregetxoek urte-sasoi guztiak eman ditzakete bertatik mugitu gabe. Baina Ipar Europako espeziekidere hegoalderantz jo behar izaten dute urte-sasoi latzetan bizirik irauteko. Hori dela eta, Euskal Herrian migratzaileak zein sedentarioa topa genitzake neguan. Horre-

Kumatze-garaian lurraldekorrik dira eta espeziekiderrak hurbiltzen bada, arra ziztu bizian irtengo da azeria uxatzera. Une horretan koroa harrotu egiten du eta burua sutan duela dirudi.

gatik eta zuhaitz asko oraindik ere biluzik egoteagatik, garaia aproposa dugu oraingoa erregetxo bekainzuriari aurkitzen saiatzeko. Erne beraz eta ea ipotz honekin topo egiten duzun hurrengoan; txikiak biltzea, baina izenak dioen bezalaxe, ospe handikoak.

• Biologoa